

**TOLOSAN 2026RAKO HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA ETA AGENDA 21
EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA. BI DOKUMENTUETAN
BERDINTASUN PRINTZIPIOA TXERTATU IZANARI BURUZKO
TXOSTENA**

2016ko apirilaren 7an, *Tolosan 2026rako hausnarketa estrategikoa eta Agenda 21 Ekintza Planaren berrikuspena, bi dokumentuetan berdintasun printzipioa txertatuta* proiektuaren laguntza teknikoa kontratazeko 2 enpresari elkarrizketa egin genien.

Baldintza ekonomiko-administratiboaren agirian, kontratazeko prozeduraren atalean, eskaintza teknikoan, genero zeharkakotasuna helburuetan, jarduketa ardatzetan, jardueretan eta metodologian (5 punturaino) baloratzen da:

- ENEA estrategias para la sostenibilidad, SL enpresari, 5 puntu eman zaizkio.
- INGURU 21, S.L. (Izadi 21) eta LAIA, S. COOP, enpresei, puntu bat eman zaie.
- ONDOAN, S. COOP, enpresari 0 puntu eman zaie.

Arrazoiak:

ENEA estrategias para la sostenibilidad, SL enpresak egindako proposamenean, genero zeharkakotasuna prozesu guztian txertatuta dago, hau da, aurretiko fasean, diagnostikoan eta Ekintza Plan berria garatzerakoan genero ikuspegia integratu dute. Gainera, prozesu guztian emakumeen partaidetza bermatzeko neurriak jartzea aurreikusten ditu.

INGURU 21, S.L. (Izadi 21) eta LAIA, S. COOP, enpresek egindako proposamenean ez dute prozesu guztian genero zeharkakotasuna txertatu, atal batean genero ikuspegiaren zeharkakotasuna aurkeztu dute, baina proiektuan integratu gabe. Aurkeztu duten proiektuan emakumeen partaidetza bermatzeko proposatzen dituzten neurriak egokiak dira, baina hauen partaidetza eskasa dela irizten bada, ez dute aurreikusten neurririk jartzea.

ONDOAN, S. COOP., enpresak bere proposamenean ez du erreferentziari egiten, ezta hobekuntzarik proposatzen.

Bestalde, baldintza ekonomiko-administratiboaren agirian, lan-taldearen prestakuntza eta esperientzian genero ikuspuntua zeharkakotasunez lantzea baloratzen da:

- ENEA estrategias para la sostenibilidad, SL enpresari, atal honetan, 3,40 puntu eman zaizkio.
- INGURU 21, S.L. (Izadi 21) eta LAIA, S. COOP, enpresei, atal honetan 5 puntu eman zaizkio.
- ONDOAN, S. COOP., 0 puntu.

Arrazoiak:


ENEA estrategias para la sostenibilidad, SL enpresari, prestakuntzan 1,40 puntu eman zaizkio, lan taldeko Miriam Gonzalezek agirietan ziurtatzen duelako berdintasunaren inguruan 90 orduko formazioa jaso duela.

Eta Ainhoa Geak FARAPI enpresarekin elkarlanean asistentzia teknikoa eman zuen *Primeros pasos para la integración de la perspectiva de género en los procesos de Agenda Local 21. Directrices metodológicas* proiektuan genero zeharkakotasuna txertatu izanaren esperientzia frogatzen du eta 2 puntu eman zaizkio.

INGURU 21, S.L. (Izadi 21) eta LAIA, S. COOP, enpresei, prestakuntzan 2 puntu eman zaizkio, lan taldeko Idoia Lekuek agirietan ziurtatzen duelako berdintasunaren inguruan formazioa jaso duela.

Eta Idoia Lekuek, genero zeharkakotasuna txertatu izanaren esperientzia ere frogatzen du eta 3 puntu eman zaizkio.

ONDOAN, S. COOP., ez du ziurtagiririk edota esperientzia edo formakuntzarik frogatzen.



Tolosan, 2016ko apirilaren 8an

Agurtza Zubero
Berdintasun Teknikaria